

Humor Eibarrés

DANOK BATERA AMAITU

Sanjuanak eltzen ziranian, beti etorri izanda Eibar'era Plaentxia'ko bandia. Gure erria ez egon, ez, Sanjuanetan, Plaentxia'ko musika banda barik pasatzeko, ez orixe.

Fama zan Plaentxia'ko musikuak ez baka-rrik instrumentuari, baita ardauari be gogor jotzen zetsela. Dana dala, jai aurretik, Plaentxia'tik deitu zetsen Eibar'ko musika direktoriari.

—I, esaidak aurtengo jaietan zer piesatzuk jotia nai dozuezen.

Eibartarrak onela erantzun ei zetsan:

—Ara, piezak nai dozuezenak jo zeikiez, baiñan gauza bat eskatzen detsuet bakar-bakarrik: joten dozuena joten dozuela, danok batera beintzat amaitu egizue.

EMEN GURE ERRIXAI

Marino'k pelota partidu bat izan eban Bergara'n. Itxura danez, kontrarixuak geiago izanda, Marino'k galdu egin biar.

Makur-makur eginda, ixil-ixilik, bazetozen automobillian Eibar'eruntz. Osintxu'ra eltzerakuan, Marino'k jaso eban berbia ta esan eban:

—Emen gure errixal

Lagunak diñotse:

—Oindiok, Osintxu'n gauaz.

Ta Marino'k:

—Los Mártires! Auxe dok gaur gure errixa. Partidua galduta: Los Mártires!

LODIXA TA MEIA

Ba zoiazen beiñ andra-gizon batzuk tronian. Andria lodilodixa zan. Gizona, me-meia, baiñan umoretsua.

Euren jarrileku aurrera etorri ziran beste bi. Egun onak emon ondoren, presentaziño lez, esan eban gure umoretsuak bere andriari begiratuaz:

—Emen au, jan ondoren. Ta ni, jan aurretik.

IDROPESIA

Eibar'ko taberna batian, biarretik urten ondoren, egunero batzen zan kuadrilla bat. Danak ziran Bako baiño arda zaliaguak. Arentzako, ura eratia pekatua zan.

Euretariko bat aspalditxuan ez zan kuadrillara agertzen. Au dala-ta, beste batek esan eban:

—¿Nun dabik Juakin?

—Baiña, eztakik ala? Klinikara eruan juen.

—¿Zer jakak ba?

—Idropesia.

—Ta ori, ¿zer dok?

—Ba, tripan urak agertzia.

Ta gure gizonaren konklusioa:

—Orba, orba. ¡Gero onek tabernarixok, ardauari urik eztetzela botatzen esango jueki!

BIAR BARIK

Eibar'ko biar krisis batén, jua zan eibartar bat Zarautz'era eskian. Etxe batén, atia jo ta urten zetsan exekoandriak:

—Zuk dezun sasoiakin eskean zabilta?

—esan zetsan asarre andra arek.

Ta gure eibartarrak:

—Ez dagona balego, ez nintzake ibilliko.

—Zeer?

—Biarra.

—Zer bada, biar gabe zaude?

—Bai, andra, biar barik. ¿Nork pentsauko eban iñork nai ez-ebana be faltau blar zanik? Au inponentia da!

J. SAN MARTIN'en "Ipuñetatik".